

eman ta zabal zazu




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Espainiako Historia USE 2019

www.ehu.es





Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Zuzenketa- eta kalifikazio-irizpide espezifikoak:

1. Gaia: 5 puntu. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere testuinguruan jartzea: 3 p.
2. Testu-iruzkina: 5 puntu. Testuaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisia: testuaren oinarriko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Criterios específicos de corrección y calificación:

1. Tema: 5 puntos. La calificación del tema se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 1 p.
 - b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1 p.
 - c. Contextualización del tema: 3 p.
2. Comentario de texto: 5 puntos. La calificación del texto se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5 p.
 - b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1,5 p.
 - c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2,5 p.
 - d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5 p.



A AUKERA

GAIA: ANTZINAKO ERREGIMENAREN KRISIALDIA (1808-1814): CÁDIZKO GORTEAK ETA 1812KO KONSTITUZIOA

TESTU-IRUZKINA: EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA-ESTATUTUA (1936-10-04)

Diputatuen Kongresuak honako Lege hau agindu eta berretsi du:

1. art. Errepublikako Konstituzioaren eta Estatutu honen arabera, Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak eskualde autonomoa osatzen dute Espainiako estatuaren barruan, "Euskal Herria" izena harturik. Haren lurraldea aipatutako probintziek gaur egun osatzen dutena izango da, eta haiek, aldi berean, modu autonomoan gobernatuko dira (...). Euskara, gaztelania bezala, Euskal Herriko hizkuntza ofiziala izango da (...).

5. art. Euskal Herriari dagokio bere lurralde autonomoaren barruko babes juridikorako eta ordena publikoa mantentzeko polizia-erregimena ezartzea.

10. art. Euskal Herriaren botereek herriarengan dute sorburua, eta Errepublikako Konstituzioaren eta Estatutu honen arabera erabiliko dituzte berak erabakitzen dituen organoek, honako mugapen hauen arabera:

a) Eskualdeko organo legegilea (...) sufragio unibertsal, berdin, zuzen eta sekretu bidez (...) hautatuko da.

b) Organo betearazleak organo legegilearen konfiantza izan behar du, eta presidentea izango da eskualdearen ordezkaria Errepublikarekiko harremanetarako (...).

Lehen xedapen iragankorra. Gerra Zibilak eragindako ezohiko baldintzek irauten duten bitartean, Euskal Herrian behin-behineko Gobernu batek aginduko du Estatutu honetan xedatutako eskumen guztiekin. Behin-behineko Gobernu horretako lehendakaria Estatutua promulgatu ondorengo zortzi egunen barruan izendatuko dute euskal udalak osatzen dituzten eta euren botoa askatasunez eman dezaketen zinegotzi herriak aukeratuek (...). Behin-behineko Gobernuaren lehendakariaren hautaketa Bizkaiko gobernadore zibilak egiaztatuko du (...). Horrela hautatutako lehendakariak behin-behineko Gobernuaren kideak izendatuko ditu, eta haiek ez dira bost baino gutxiago izango (...).

Gaceta de Madrid, 281. zenbakia, 1936ko urriaren 7koa.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 1. zenbakia, 1936ko urriaren 9koa.



B AUKERA

GAIA: DIKTADURA FRANKISTA EUSKAL HERRIAN (1939-1975)

TESTU-IRUZKINA: JOAQUÍN COSTAREN *OLIGARKIA ETA KAZIKISMOA* LANAREN PASARTEA (1901)

Horren bitartez, gobernu mota hau osatzen duten faktoreak eta bakoitzak gainerakoekiko okupatzen duen posizioa erabakitzen ditugu.

Hiru dira kanpoko osagai horiek: 1. Bando bakoitzeko *oligarkak* (primate deiturikoak), gizon itzaltsuak edo gailenak, haren "buruzagitza" osatzen dutenak eta, oro har, erdialdean bizi direnak; 2. Lehen, bigarren edo hurrengo mailako *jauntxoak*, lurraldean sakabanatuak; 3. *Gobernadore zibila*, haien komunikazio-organo eta tresna den pertsona. Funtsean, horixe da trikimailu guztia, bere zamaren azpian nazioa amore emanda, intzirika eta umildua daukana.

Oligarka eta jauntxoek osatzen dute klase gidari edo gobernatzaile deitzen dioguna eta 'alderditan' banatuta eta sailkatuta dagoena. Baina hala deitzen badiogu ere, ez da hala; hala balitz, nazioaren zati eta haren ordezkari organiko izango litzateke. Baina gorputz arrotza baino ez da, zergak ezarri eta kobratzearren ministerioak, kapitaintzak, telegrafoak, trenbideak, bateriak eta gotorlekuak indarrez hartutako atzeritar talde bat izango litzatekeen bezala.

Huteskundeetan (...), ez da herria bozkatzea faltsifikatu eta sistema galbidera eramaten duena, klase kontserbadoreak eta gobernatzaileak baizik. Horretarako, euren posizioaz, aberastasunaz eta masak zuzentzeko eman zitzaizen aginteaz eta botereaz baliatzen dira.

Joaquín Costa, *Oligarkia eta kazikismoa Espainiako gaur egungo gobernu mota gisa* (jatorrizko izenburua: *Oligarquía y caciquismo como la forma actual de gobierno en España*), Madril, 1901.



ESPAINIAKO HISTORIA

Ebaluazio-irizpideak

1. Espainiaren historia eta euskal historia garaikidea osatzen duten prozesu azpimarragarrienak ezagutzea, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak identifikatzea.
2. Prozesu historikoetan gauza batzuk zergatik aldatzen diren eta beste batzuek zergatik irausten duten azaltzen duten faktoreak ulertzea, eta gizarte-gertaerei lotutako kausalitate-aniztasunaz ohartzea.
3. Oinarrizko kontzeptu eta termino historikoak ulertzea eta egokiro erabiltzea.
4. Ikasgaiaren edukiak egokitasunez adieraztea eta jakinaraztea.

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak

1. Gaiak nahiz testu-iruzkinak gehienez 5 puntu balioko dute; beraz, azken nota 0 eta 10 punturen artean egongo da.
2. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere testuinguruan jartzea (beste gertakizun sinkroniko batzuekin erlazionatzea): 3 p.
3. Testu-iruzkinerako
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisisa: testuaren oinarrizko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Oharrak

Ohar hauek betetzeak asko lagunduko du bigarren zuzenketa-prozesuan.

1. Bi galderetako bakoitzean izandako kalifikazioa argi eta garbi adierazi behar da ariketan.
2. Ariketetan izandako erroreak ere adierazi behar dira eta, egoki joz gero, aplikatutako balorazioaren irizpideen azalpen labur bat ere emango da.